



Izena : MEDICRONIC, S.L.

Helbidea: PG PAE ASUARAN (ED. ARTXANDA), 4-B

Herria : ERANDIO (BIZKAIA)

Telefona : 946 444 444 / 606 46 00 75

E – mail : info@medicronic.com

Web Orrialdea : www.medicronic.com

Produktuaren deskripzioa. Zerbitzua.

Telefonia finko, mugikor edo interneten bidez gaixotasun kronikoen jarraipen eta kontrol sistemen aplikazioen garapena eta horien salmenta eta/edo ustiapena.

MEDICRONIC proiektu berrizalea telefonia mugikorrean oinarritzen den telemedikuntzako zerbitzua eskaintzeko sortu da. Zerbitzu honek medikuntzako ezagutzak eta aurrerakuntza teknologikoak biltzen ditu eta pazienteen eskura jartzen ditu.

Medikuntzako afekzioen jarraipen diagnostiko eta kontrolerako zerbitzua da, ondoko hauetarako aukerak ematen dituena:

- Gaixotasun kronikoetarako tratamenduen itsasketarekiko kontrola egitea.
- Gaixo kronikoen jarraipena euren etxe, bidaia edo laneko tokietan egitea, osasuneko kostuen kudeaketa egokiagoa lortuz.
- Gaixotasun kronikoa kontrolatzea eta horren jarraipena egitea, pazienteari medikuntzako tratamenduaren aplikazio zuzenean identifikatzen diren parametro bitalei buruzko datuak ematea eta, hala denean, baita bere medikuari ere.

Zerbitzu hau paziente eta medikuntzat abantailak dituzten ondoko ezaugarri hauekin eskaintzen da:

- Telefono mugikorra zein finkoa erabiliz.
- Datuetara interneten bidez iristea.
- Aldi berekoa da.
- Edozein tokitan eskaintzen da.
- 24 ordu eginean/365 egun urtean.

Zerbitzuak terminalaren bidez erabiltzailea aurkitzeko sistema bat dauka, Webaren bidez gaixotasun kronikoen jarraipena egiteko sistema eta botikak hartzea ohartarazteko eta gogorarazteko SMS bidezko sistema bat.

Hau guztia produktu erraz eta erosoan bildu da, ezaugarri horien ondorioz edonork erabiltzeko modukoan.

Erabiltzailea ondoko zerbitzu hauen abonatu egin daiteke:

- Oinarritzakoa: Interfaz periferiko bakarra (adibidez: Glukosa edo tentsio arteriala). Zerbitzu honen barruan datuak kontrol zerbitzura egunero bidaltzea sartzen da (asteburuetan zian ezik), hilero txosten bat egitea (postaz edo elektronikoa) eta Webera iristea.
- Parametro askotako eta paziente askorentzako estazioa: Zerbitzu hau egoitza edo medikuntzako zentroetarako diseinatuta dago. Estazio bakarrarekin paziente baten baino gehiagoren datuak eta parametro bat baino gehiago transmititu daitezke.

- Bestelakoak: Interfaz periferiko bat baino gehiago, neurgailuak barne (glukometroa, tentsiometroa, espirometroa, etab). Igorpenak kontrol zerbitzura egunero egunean behin baino gehiagotan egingo dira (adibidez glukosa edo tentsio arteriala) baita asteburuetan ere; astero txosten bat egingo da (postaz edo elektronikoa), Webera iristeko aukera egongo da, eta datuak medikuari, zentroari edo izendatu den sendiari igorriko zaizkio. Halaber, kontrol zentroko medikuen taldeak txostenak berrikusiko ditu.

Kontrolatzen diren parametroak:

- Tentsio arteriala.
- Glukosa.
- Espirometria.
- Pisua.
- SPO2.
- ECG.

Garatzen ari direnak

- Sedimentazioa (INR).
- Kolesterola.

Merkatuaren deskripzioa.

Gure gizartean gero eta handiagoa da bizi itzaropena. Biztanleriaren zahartzea eta pertsonen bizitzaren azken etapa horretako laguntza sozio sanitarioaren kalitatea pertsona guztiak gero eta gehiago arduratzen dituzten ezaugarriak dira. Horregatik beharizan horiek estaltzeko eta horiei aurre egiteko produktu guztiek negozio izateko proiektzio oso onak dituzte.

Dena dela, errealitate hori ez da arrakasta lortzearen berme. Inork ez daki artean laguntza eredia nola garatuko den eta ematen du bitarteko publiko eta pribatuak (aurrezpena-jubilazio planak) mugatuak izango direla eta, ondorioz, kontua da ezin dugula aurrez argi ezarri zein izango den gastu sozio-sanitariorako konpromiso maila.

Gure produktuaren xedea gaixotasun kroniko guztiak dira, ez bakarrik berariaz hirugarren adinari lotuta daudenak (nahiz eta ustez aukerarik gehien ematen duten bezeroak horiek izan) eta ondorioz helburua kuotarik ahalik eta merkeena ezartzea da. Halaber, menpekotasunari buruzko legeak ematen dituen abantailak jaso daitezke erabiltzaileek abantaila horien onuradun izateko mekanismoak ezartzen direnean.

Proiektu honek gaixotasun kronikoen kontrolerako zerbitzua eskaintzen du (hipertentsio arteriala, diabetesa, BGBK, asma, arritmia, lipidoak eta kolesterola, koagulopatiak, kardiopatiak, erreumatisismoak), eta gauza bera gaixotasun larrien kasuan ere (koronariopatiak, arnasketaren arloko afekzioak, presio arterialaren alterazioak, aldaketa metabolikoak, tentsio arteriala), ebakuntzen ostekoetan (ebakuntza kirurgikoak, ebakuntza kardiako eta baskularrak, arnasketa-lixeriketa aparatuko afekzioak, traumatismoen ostekoak, erditze ostekoak), medikuntzako jarraipena behar duten gaixotasun arrunten egonaldietan eta euren konstante bitalak etenik gabe kontrolatzea behar duten diagnostiko terminaleko pazienteen kasuetan; eta baita lan segurtasunaren arloari dagokionez ere (urteroko ohiko azterketak, aldiroko kontrolak).

Ustezko bezeroen artean ondoko hauek sar daitezke:

- Medikuntzako aseguru etxeak.
- Ospitaleak eta klinikak.
- Etxez etxeko laguntza enpresak.
- Zentro geriatrikoak, medikuntza zerbitzu propioa ez dutenak.
- Udalak eta aldundiak.
- Enpresako medikuntza zerbitzuak.
- Erabiltzaile indibidualak

Sortzeko urtea. 2007

Oraingo langileria. 3

Facturazioa. 31.000,00 €